## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 60 INGURUMEN ETA HIRIGINTZA

**Programa:** 63 INGURUMEN IRAUNKORTASUNA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 60 MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**Programa:** 63 SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Hona hemen 2017ko ekitaldian Ingurumen Iraunkortasunaren Programaren barruan egindako jarduketen laburpena:

Nabarmendu behar da, lehenengo eta behin, Foru Gobernu Kontseiluak 2017ko urriaren 24an erabaki zuela Arabako Lurralde Historikoko Garapen Jasangarrirako II. Plan Estrategikoa (2018-2030) onartzea. Onartutako planean hautatu den kudeaketa ereduak jasangarritasun printzipioak biltzen ditu, zeharka hedatzen da Aldundiko sail eta egitura guztietara, eta foru erakundeak esleituak dituen eskumenak eta jarduketa arloak ditu ardatz.

Zazpi erronka eta hamalau jarduketa lerro estrategiko formulatzen ditu planak garapen jasangarriaren arloan. Europa osoan eta EAEn lan ildo horretatik azken urteotan ezarri diren helburu eta konpromiso berriekin lerrokatzen da.

Ingurumenaren zuzentze eta leheneratze jarduketak gauzatzeari dagokionez, jarraipena eman zaio antzinako meatzeguneak berreskuratzeko programari, eta betelan eta leheneratze sekuentzialeko esku hartzeak ezarri dira, funtsean Langraiz Okako Torco izeneko antzinako harrobia ardatz dutenak.

Esku hartze berariazkoa egin da, orobat, kontrolik gabeko isurketek eragindako inguruneetan; zehazki, ekologia eta paisaia birsortzeko ekintzak egin dira. Gure lurraldeko zenbait gune degradaturi ere ingurumen tratamendua ezarri zaie. Azpimarratu behar da, ildo horretan, Samaniegoko eta Durako antzinako zabortegietan zigilatze eta leheneratze lanak egin direla eta Eltziegoko zabortegi leheneratuan zuhaitzak eta zuhaixkak landatu direla.

Zadorrako urtegien ertzetako egokitzapen ekologikorako lanak egin dira, urbazterreko habitatak babestu, leheneratu eta hobetzeko lanak, zehazki, eta horiek ere ekintza aipagarriak izan dira ingurumena

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

Las actuaciones realizadas a lo largo del ejercicio 2017 dentro del Programa de Sostenibilidad Ambiental se resumen a continuación:

En primer lugar destacar la aprobación, mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 24 de octubre de 2017, del II Plan Estratégico de Desarrollo Sostenible del THA (2018-2030). El Plan aprobado adopta un modelo de gestión, que integrando criterios de sostenibilidad, contempla transversalmente a todos los Departamentos y estructuras de la Diputación, centrándose en las atribuciones competenciales y ámbitos de actuación que desarrolla la institución foral.

El Plan formula siete retos y doce líneas estratégicas de actuación en materia de desarrollo sostenible, alineándose con los nuevos objetivos y compromisos adoptados a nivel europeo y de la CAPV en esta línea de trabajo en los últimos años.

En lo que se refiere al desarrollo de actuaciones de Corrección y Restauración Ambiental se ha dado continuidad al programa de recuperación de antiguas áreas mineras, contemplando intervenciones de relleno y restauración secuencial focalizados fundamentalmente en la antigua cantera de El Torco en Nanclares de la Oca.

Han sido también objeto de intervención particularizada, con acciones de regeneración ecológica y paisajística, los entornos afectados por vertidos incontrolados que han incluido el tratamiento ambiental de varias zonas degradadas de nuestro territorio. Resaltar a este respecto las actuaciones de sellado y restauración llevadas a cabo en las antiguas escombreras de Samaniego y Durana, así como de plantación de especies arbóreas y arbustivas en la escombrera restaurada de Elciego.

La adecuación ecológica de las márgenes de los Embalses del Zadorra, con la ejecución de trabajos para la protección, restauración y mejora de los hábitats ribereños, son acciones también destacadas en

leheneratzeko gauzatutako programaren barruan. Izan ere, programa horren xedea Uribarri Ganboako urtegiko zenbait gune degradatutan esku hartzea izan da. Urrunagako urtegian ere esku hartu da, ingurumenaren aldaketen azterlan-inbentarioa egin baita urertzaren perimetro osoan.

Espazio publikoak jolaserako erabiltzeko egokitzeak ingurumen baliabideez gozatzea indartzen du, Arabako natura eta paisaia ondarearen gaineko ezagutza sustatzen du eta naturan izanik ekojolaserako jarduerak garatzen laguntzen du. Arabako Lurralde Historikoko parkeak eta ibilbide berdeen sarea gero eta gehiago erabiltzeak erakusten du programak zer-nolako arreta jartzen dien.

Lan ildo horren barruan azpimarratzekoa da esku hartze batzuk egin direla lehendik badiren ibilbideak hobetzeko, hala nola Vasco-Navarro trenbide zaharreko bide berdea Legutioko geltokiaren inguruan (2017-2018 bitartean), GR-1 “Ibilbide historikoa” Villanañe parean, eta GR-25 “Lautadako itzulia mendi hegaletatik”, Subillabideko industrialdearen parean.

Nerbioiko Parke Linealeko bide berdeari ere arreta jarri zaio eta tarte berri bat egokitu eta atontzeko lanak egin dira, ibilbidea Amurrioko hirigunearekin lotzeko Olako auzoaren parean.

Ibilbide berrien egokitzapenari dagokionez, Zadorrako ibilbide berdeko obren I. fasea burutu da Billoda eta Langraiz Oka lotuko dituen tartean.

Garaioko eta Landako parkeetan hainbat jarduketa egin dira bertako ekipamendu eta azpiegiturak hobetzeko. Hain zuzen ere, parke horietako hondartzek bandera urdina eskuratu zuten 2016an. Nabarmentzekoa da Landako parkeko irisgarritasuna hobetzeko lanak eta obrak egin direla mugikortasun urriko kolektiboentzat (uretan sartzeko eta aulki anfibioak erabiltzeko pasabide egokitua, dutxa eta iturri egokituak), eta Garaioko Parkeko Informazioguneko interpretazio eremua hobetzeko lanak ere egin direla.

Zerbitzuaren jarduera esparruak beste arlo bat ere hartzen du barnean: plan, programa eta proiektuen ingurumenaren gaineko eragina ebaluatu eta



el programa de Restauración Ambiental llevado a cabo y que ha tenido como objeto de intervención diversos ámbitos degradados del Humedal del Embalse de Ullibarri-Gamboa. El Embalse de Urrunaga ha sido objeto también de atención con un estudio-inventario de alteraciones ambientales en el perímetro ribereño.

El acondicionamiento de espacios públicos para el uso recreativo potencia el disfrute de los recursos ambientales, promueve el conocimiento del Patrimonio Natural y Paisajístico de Álava y favorece el desarrollo de actividades ecorrecreativas en contacto con la Naturaleza. La utilización creciente de los Parques del Territorio Histórico de Álava y de la Red de Itinerarios Verdes es reflejo de la atención que a los mismos se presta en el programa.

Dentro de esta línea de trabajo cabe resaltar las intervenciones de mejora en rutas ya existentes como la Vía Verde del antiguo Ferrocarril Vasco-Navarro en el entorno de la antigua estación de Legutio (ejecución 2017-2018), el GR-1 “Sendero Histórico” a su paso por Villanañe y el GR-25 “Vuelta a la Llanada a Pie de Monte” a la altura del Polígono de Subillabide.

La Vía Verde del Parque Lineal del Nervión ha sido también objeto de atención con los trabajos de habilitación y adecuación de un nuevo tramo para enlace del recorrido con el núcleo urbano de Amurrio a la altura del Barrio de Olako.

En cuanto a acondicionamiento de nuevos itinerarios, se ha llevado a cabo la I fase de obras de la Ruta Verde del Zadorra en un trayecto que enlazará las localidades de Víllodas y Nanclares de la Oca.

Los Parques de Garaio y Landa, cuyas playas obtuvieron en 2016 el distintivo de Bandera Azul, han sido objeto de varias actuaciones dirigidas a mejorar sus equipamientos e infraestructuras. Destacar los trabajos y obras dirigidos a la mejora de accesibilidad del Parque de Landa para colectivos con movilidad reducida (pasarela adaptada de entrada al agua y para uso de sillas anfibias, acondicionamiento de ducha y fuente), así como para la mejora del área interpretativa del Centro de Información del Parque de Garaio.

La Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, otra de las disciplinas que abarca el ámbito de actuación del Servicio y que

zuzentzea. Baieztatu da hori garrantzi handiko bitartekoa dela gure lurraldeko ingurumen balio eta baliabideak antolatu eta babesteko. Bada, Ingurumen Ebaluazioaren Atalak horri buruzko txostenak igorri eta kasuan kasuko espedienteak bideratu ditu.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

Kontrolik gabeko hainbat hondakindegi zigilatu eta leheneratu dira eta kontrolik gabeko hainbat isurgune garbitu eta ezabatu dira probintzian. Horrenbestez, guztira 28.990 m2 lurretan ingurumena berroneratu da eta 3.187 zuhaitz eta zuhaixka landatu dira.

Aurrera jarraitu dute 2017. urtean zehar Langraiz Okako “El Torco” harrobi zaharreko ingurumena eta paisaia leheneratzeko betetze sekuentzialaren lanek.

Batez ere Uribarri Ganboako urtegiko Ramsar sektoreko urertzetan ere ekologia eta paisaia leheneratzeko eta habitat naturalak hobetzeko jarduketak egin dira, eta 5.500 landare autoktono landatu dira.

Ibilbide berdeen sarean 2017an ibilbide tarte gehiago egokitu dira. Horrela, mugikortasun jasangarrirako 6,484 km gehiago jarri dira zerbitzuan: Zadorrako bide berdean, Billodatik Langraiz Okaraino (4,744 km), eta Amurrion, Nerbioiko Parke Linealeko bide berderako egokitutako tarte berrian, Zamorako Landatik Olako auzoraino (1,740 km).

Horrenbestez, dagoeneko 1.078 km ditu Arabako bide berdeen sareak.

Ingurumen zabalkunde eta hezkuntzako jarduerek arreta ugari eskatu dituzte, eta nabarmentzekoak dira urtegiaren muturretako Ramsar hezeguneetan, Garaioko parkean eta Mendixurko parke ornitologikoan gauzatutakoak. Hain zuzen, 2.383 parte hartzaile baino gehiago hartu dituzte urtean zehar.

Planen, programen eta proiektuen ingurumen inpaktua ebaluatzeari eta zuzentzeari dagokionez, 80 txosten egin dira 2017. urtean.



se confirma como una herramienta de gran importancia en la ordenación y protección de los valores y recursos ambientales de nuestro territorio, ha sido objeto de atención por la Sección de Evaluación Ambiental a través de la emisión de informes y la instrucción de los correspondientes expedientes.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Se ha procedido al sellado y restauración de escombreras incontroladas de residuos, así como a la limpieza y eliminación de puntos de vertido incontrolado en la provincia, que ha supuesto la regeneración ambiental de 28.990 m2. de terreno y la plantación de 3.187 árboles y arbustos.

Los trabajos de relleno secuencial para restauración ambiental y paisajística de la antigua cantera de “El Torco” en Nanclares de la Oca han continuado a lo largo de este 2017.

Otras actuaciones de restauración ecológico-paisajística y mejora de los hábitats naturales han tenido como escenario preferente las riberas del Embalse de Ulllibarri-Gamboa, que han sido objeto de revegetación con 5.500 plantas autóctonas.

El acondicionamiento de nuevos tramos de rutas en la Red de Itinerarios Verdes llevados a cabo en 2017, ha supuesto la puesta en servicio de 6,484 km. adicionales para la movilidad sostenible, correspondientes a la Ruta Verde del Zadorra entre Víllodas y Nanclares de la Oca (4,744 km) y al nuevo tramo habilitado desde el Campo de Zamora al Barrio de Olako en Amurrio para la Vía Verde del Parque Lineal del Nervión (1,740 km.).

Con ello la Red de Itinerarios Verdes de Álava suma 1.078 km.

Las actividades de divulgación y educación medioambiental han implicado múltiples atenciones, destacando las desarrolladas en el Humedal Ramsar de las Colas del Embalse, Parque de Garaio y Parque Ornitológico de Mendixur que han recibido más de 2.383 participantes a lo largo del año.

En materia de Evaluación y Corrección de Impacto Ambiental de Planes, Programas y Proyectos, se han emitido 80 informes a lo largo del año 2017.